

MEDIKUNTZAK LAGUNDU EGITEN DIGU

1. ARIKETA: Lotu definizioarekin.

TRATAMENDUA

Gaixotasunak identifikatu eta sendatzeaz arduratzen den zientzia.

DIAGNOSTIKOA

Gaixotasuna zein den eta zerk sortzen duen jakitea da.

MEDIKUNTZA

Gaixoa sendatzeko edo hobetzeko ezartzen zaizkion neurriak dira.

2. ARIKETA: **Diagnostikoa** (irakurri)

Diagnostikokoak egiteko teknika hauek erabiltzen dira:

- **Sintomak aztertzea** Adb: barizela edo astanafarreraia duen jakiteko gorputzean pikor gorriak dituen, sukarra (calentura) duen eta buruko mina dituen begiratzen da.



- **Analisiak egitea.** Analisi ezberdinak egin daitezke:

- Gernu (txiza) analisia.
- Odol analisia.
- Ehunen analisia.



- **Ekografiak:** Ultrasoinuen bidez gure gorputzaren barneko organo eta atalak ikusten 2 dimentsio eta 3 dimentsiotan. Haurdunaldietan, tumoreak detektatzeko....



- **Erradiografiak:** X izpien bidez gure gorputzeko atalak ikusten dira.



3. ARIKETA: Diagnostikoak egiten.

- Bizikletan zoazela kolpe izugarria hartu du ziklista batek eta hezurak apurtuta dituen jakin nahi dugu. Zer diagnostiko egingo zenioke?

Ekografia	Erradiografia	Analisiak	Sintomak aztetu.
-----------	---------------	-----------	------------------

- Haurdun dagoen emakume batek kolpe bat hartu du eta ez dakigu bere haurra nola dagoen. Zer diagnostiko egingo zenioke?

Ekografia	Erradiografia	Analisiak	Sintomak aztetu.
-----------	---------------	-----------	------------------

- Txizeko infekzioa duen gaixoari zer diagnostiko mota egingo zenioke?

Ekografia	Erradiografia	Analisiak	Sintomak aztetu.
-----------	---------------	-----------	------------------

- Gaixo bati IHESA (SIDA) duen ala ez detektatzeko zer diagnostiko egingo zenioke?

Ekografia	Erradiografia	Analisiak	Sintomak aztetu.
-----------	---------------	-----------	------------------

- Gripea edo hotzeria duen gaixo bati zer diagnostiko egingo zenioke?

Ekografia	Erradiografia	Analisiak	Sintomak aztetu.
-----------	---------------	-----------	------------------

- Gaixo bati diabetesa duen ala ez detektatzeko zer diagnostiko egingo zenioke?

Ekografia	Erradiografia	Analisiak	Sintomak aztetu.
-----------	---------------	-----------	------------------

- Gaixo bati Malaria duen ala ez detektatzeko zer diagnostiko egingo zenioke?

Ekografia	Erradiografia	Analisiak	Sintomak aztetu.
-----------	---------------	-----------	------------------

- Gaixo bati astanafarrerria edo barizela duen ala ez detektatzeko zer diagnostiko egingo zenioke?

Ekografia	Erradiografia	Analisiak	Sintomak aztetu.
-----------	---------------	-----------	------------------

4. ARIKETA: **Tratamendua.** (irakurri)

Tratamendua: gaixoa sendatzeko edo hobera egiteko jartzen zaizkion neurriak dira. Mota ezberdinak aurkitu ditzakegu:

- **Sendagaiak:** Gorputzari eragiten dioten substantziak dira. Adibidez:

- **Antibiotikoak:** **bakterio** infekziosoen aurka. Adibidez: bronkitis eta neumoniaren aurka amoxicilina antibiotikoa erabiltzen da.
- **Txertoak (vacuna):** gaixotasun batzuei aurre egiteko ahalmena ematen digute. Adibidez gripearen aurkako txertoa.
- **Analgesikoak:** mina arintzen duten botikak. Adibidez: Dalsy, aspirina....


- **Kirurgia.** Gaixoari egiten zaion eskuhartze fisikoa "trabajo manual con contacto físico" da. Adibidez:

- **Ebakuntzak:** Bihotzeko ebakuntza bat, hortz bat kentzea...
- **Transplanteak:** Gorputzeko organo edo ehun ezberdinak ordezkatzeko da, hau da, gaizki dagoena kendu eta berria jartzea. Adibidez: biriken trasnplantea.



- **Beste tratamendu batzuk:**

- **Atsedena (descanso):** Zenbait traumatismo edo birus batzuen infekzioak tratatzeko.
- **Masajea:** Muskuluetako, artikulazioetako... minak sendatzeko.
- **Erradioterapia eta kimioterapia:** Minbiziaren (Cancer) aurka.
- **Psikologoak:** Depresioak, antsietateak... tratatzeko.



5. ARIKETA: **Tratamenduak.**

- Minbizia duen gaixo bati.

Psikologoa	Kimioterapia	Analgesikoa	Masajea
------------	--------------	-------------	---------

- Depresioa duen gaixo bati.

Psikologoa	Ebakuntza	Analgesikoa	Masajea
------------	-----------	-------------	---------

- Lepoko mina duen gaixo bati.

Psikologoa	Ebakuntza	Kimioterapia	Masajea
------------	-----------	--------------	---------

- Hotzeria (resfriado) duen gaixo bati.

Kirugia	Ebakuntza	Analgesikoa	Masajea
---------	-----------	-------------	---------

- Giltzurrunen harriak dituen gaixo bati.

Psikologoa	Ebakuntza	Erradioterapia	Atsedena
------------	-----------	----------------	----------

- Aitona-amona bati gripea ez harrapatzeko.

Psikologoa	Ebakuntza	Txertoa	Masajea
------------	-----------	---------	---------

- Bihurritu edo zaintiratu (esguince) bat duen gaixoari.

Psikologoa	Masajea	Ebakuntza	Txertoa
------------	---------	-----------	---------

- Birikek behar bezala funtzionatzen ez dioten gaixo bati. Arazo larriarekin.

Atsedena	Transplantea	Txertoa	Masajea
----------	--------------	---------	---------

6. ARIKETA: **Prebentzioa**. Ikusi bideo hauek.